

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA



Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Bigarren Hezkuntzako Irakasle Masterra

Master Amaierako Lana

Antzerkia eta adierazkortasun-baliabideak uztartzeko proposamen didaktikoa

Ines Marguerite Azkarate Etxeberria

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia 2025

Iruñeko egoera soziolinguistikoa gazteen euskararen erabilera apalean islatzen da. Ondorioz, gazteek batere adierazkorra ez den euskara darabilte. Testuinguru honetan Bigarren Hezkuntzan lantzeko proposamen didaktiko bat eratu da ikasleak adierazkortasun baliabide batzuekin trebatzeko eta beren *hizkuntza bizipenetan* eragiteko. Proposamena egituratzeko, alde batetik, kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak aintzat hartu dira, hizkuntza manipulatzeko gaitasuna garatzeko, eta, bestetik, antzerkia izan da erregistroen formala eta informalaren ezaugarrietan murgiltzeko oinarria.

Gako-hitzak: Bigarren Hezkuntza, adierazkortasun baliabideak, hizkuntza bizipenak, kontzientzia metalinguistikoa, antzerkia.

La situación sociolingüística de Pamplona se ve reflejada en el poco uso que hacen los y las jóvenes del euskera y, por ello, el euskera que hablan es muy poco expresivo. Es en este contexto en el que se ha planteado una propuesta didáctica, dirigida a que el alumnado de secundaria pueda familiarizarse con algunos de los recursos de expresividad propios del euskera, y que pueda además incidir en sus *vivencias del lenguaje*. Para estructurar la propuesta, por un lado, se han tenido en cuenta aportaciones sobre la conciencia metalingüística, enfocadas a desarrollar la capacidad de manipular el lenguaje. Por otro lado, el teatro ha sido la base para sumergirse en las de los diferentes registros.

Palabras clave: Educación Secundaria, recursos de expresividad, vivencias del lenguaje, conciencia metalingüística, teatro.

La situation sociolinguistique de Pampelune reflète le peu d'usage que font les jeunes de l'euskera, et c'est pourquoi l'euskera qu'ils utilisent est peu expressif. C'est dans ce contexte qu'a été faite une proposition didactique, qui vise à familiariser les élèves de l'enseignement secondaire avec les ressources d'expressivité de l'euskera et ainsi, pouvoir influencer sur leurs expériences linguistiques. Pour structurer cette proposition didactique, d'une part, des apports sur la conscience métalinguistique ont été pris en compte pour améliorer la capacité de manipuler le

langage. Et, en outre, le théâtre sera la base pour approfondir dans les caractéristiques propres du langage formel et informel.

Mots-clés: secondaire, ressources d'expressivité, expériences de la langue, conscience métalinguistique, théâtre.

The sociolinguistic situation of Pamplona is reflected in the limited use that young people make of Basque, which results in a form of Basque that tends to lack expressiveness. It is in this context that a didactic proposal has been put forward, aimed at enabling secondary school pupils to become familiar with some of the expressive resources specific to the language, while also encouraging reflection on their personal experiences with language. In structuring the proposal, on the one hand, contributions on metalinguistic awareness have been considered, aimed at developing students' ability to manipulate language. On the other hand, theatre has been the main tool for exploring the features of formal and informal language.

Keywords; secondary education; expressive resources; language experiences; metalinguistic awareness; theatre.

Aurkibidea:

1. Sarrera.....	5
2. Oinarri teorikoa.....	6
2.1. Egoera soziolinguistikoa.....	6
2.2. Hizkuntza-hautuak eta naturaltasuna	7
2.3. Gazte hizkerak eta erabilera.....	10
2.4. Kontzientzia metalinguistikoa.....	11
2.5. Antzerkia hezkuntzan.....	13
3. Proposamen didaktikoa.....	15
3.1. Testuingurua	15
3.2. Helburuak.....	17
3.2.1. <i>Etaparen helburuak</i>	17
3.2.2. <i>Helburu orokorrak</i>	18
3.2.3. <i>Helburu zehatzak</i>	18
3.3.1. <i>Ebaluazio irizpideak</i>	19
3.3.2. <i>Baliabideak</i>	20
3.4. Proiektuaren sekuentziazioa.....	21
3.5. Proiektuaren garapena.....	23
3.5.1. <i>Antzerkiaren historia</i>	23
3.5.2. <i>Antzerkiaren estiloa, generoa eta estruktura</i>	26
3.5.2.1. <i>Estiloa</i>	26
3.5.2.2. <i>Generoa</i>	28
3.5.2.3. <i>Estruktura</i>	29
3.5.3. <i>Adierazkortasun-baliabideetan eta erregistroen arakatzea</i>	29
3.5.3.1. <i>Erregistroak</i>	29
3.5.3.2. <i>Adierazkortasun-baliabideak</i>	30
2. Errepikapenak.....	32
4. Mailakatzea.....	34
5. Eratorpen atzizkiak	34
6. Esamoldeak eta atsotitzak.....	35
7. Alderaketa adierazkorrak	35
4. Emaizak	35
5. Ondorioak	37
6. Erreferentziak.....	38
7. Eranskinak	41

1. Sarrera

Gaur egun, Iruñean, euskara hizkuntza gutxitua den heinean, eta bizi duen egoera diglosikoaren ondorioz, ikasle askorentzat ikastetxea da euskaraz aritzeko espazio bakarra, eta, hor ere, gehienek kostata erabiltzen dute. Horren ondorioz, ikasle askok euskaraz mintzatzeko erraztasunik ez dute, eta, oro har, batere adierazkorra ez den euskara darabilte. Izan ere, lagunartean eta familiako kideekin erdaraz komunikatzen dira ia beti, bai ikastetxean, bai ikastetxetik kanpo.

Erabilera apal horri aurre egitea ez da erronka batere erraza, eta, horregatik, hainbat ikerketak horren atzean dauden arrazoiak aztertu dituzte. Nolanahi ere, hainbat dira egoera hori baldintzatzen duten faktoreak, eta, horrenbestez, askotariko erantzun eta proposamenak behar dira. Dena den, arazoa identifikatu denez gero, gero eta gehiago dira ahozketasuna eta lagunarteko hizkera Bigarren Hezkuntzan lantzearen inguruko ikerketa, proposamen eta baliabideak. Alabaina, hizkera adierazkortasunaren baliabideak eta antzerkia uztartzen dituzten proposamenak gutxi dira.

Hori dela eta, Euskara eta Literatura ikasgaian hizkera adierazkorra lantzeko burutu den proiektua aurkeztuko da hemen. Lehenik eta behin, Iruñerriko eta antzeko testuinguruen egoera soziolinguistikoa laburki aztertuko da, erabilera apal horren ezaugarri nabarmenak aipatzeko. Hori aztertuta, kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak aintzat hartuko dira, proposamen didaktikoaren hirugarren atalaren egokitasuna justifikatzeko.

Ondoren, antzerkia Bigarren Hezkuntzan lantzearen aukerak azalduko dira, hizkuntza gaitasunak, ahoskera eta gorputz adierazpena lantzeko oso tresna baliagarria baita. Eta, behin egoeraren ezaugarriak eta aukerak identifikatuta gero DBHko 4. mailako Euskara eta Literatura ikasgaian lantzeko proposamena azalduko da, bertan erabilitako metodologia eta helburuak zehaztuz. Bukatzeko, proposamenaren atal bat Sanduzelai auzoko Iparralde ikastetxean

praktikara eramatearen emaitzak aipatuko dira, eta proiektuaren diseinuaren prozesuan gailendu diren ondorioak laburki azalduko dira.

2. Oinarri teorikoa

2.1. Egoera soziolinguistikoa

BAT aldizkari soziolinguistikoa 2018an argitaratutako txosten batek dionez, Nafarroan euskararen ezagutza biztanleen % 0-25 duten gunen soziolinguistikoetan, Iruñean, adibidez, haur izatetik gazte izatera igarotzean euskararen erabileraren galera eta erdarara jotzeko joera sumatu da (Anduaga eta Kasares, 2018: 73). Iruñean gertatzen dena ez da errealitate bakartua, eta, horregatik, erabileran eragiteko moduak bilatzea da euskal soziolinguistikaren ardura nagusienetako bat (Hernández eta Santamaría, 2021: 357).

Ablanedo (2023: 89) Bigarren Hezkuntzako Euskara eta Literatura irakaslearen hitzetan: “Iruñerrian euskaraz ikasteak gero eta antz handiagoa du frantses kolegio batean ikastearekin, esaterako. Eremu akademikoarekin lotzen dute, eta ideia horrek euskara kaltetzen du”. Beraz, gazteen euskara erabileran eragin ahal izateko beharrezkoa da gazteek euskara akademikoak ez diren beste eremu batzuekin lotzea edo irudikatzea.

Dena den, agerikoa da gazteen mundua ez dagoela euskararekin haurren mundua bezain lotua. Alegia, haurrentzat euskarazko kultura eskaintza zabalagoa da gazteentzat zuzenduta dagoena baino. Izan ere, gazteen kultur erreferentziek mundu globalizatuaren eragin handiagoa dute, hala nola musikan, ikus-entzunezkoetan eta sare-sozialetan. Azken urteetan, euskal gazteen artean (beste herrialde askotan bezala) Tiktok sare sozialaren erabilera gailendu da. Ikerketa baten emaitzen arabera, Euskal Herriko Tiktok sortzaileen artean gutxi batzuek bakarrik sortzen dituzte euskarazko edukiak, “saria” apalagoa baita gaztelaniaz sortutakoarekin konparatuta (Urionaguena, 2023:142-144). Bestalde, gero eta euskal musika eskaintza handiagoa egon arren, ikus-entzunezkoei dagokienez, oraindik oso ekoizpen gutxi dago, euskal film, telesail edo antzezlanen kopurua hizkuntza hegemonikoetan sortzen direnen kopuruarekin konparatuz gero. Laburbilduz, Iruñeko gazteak erdara

prestigio gehien duen errealtate soziolinguistikoan sozializatzen dira, eta beren eguneroko erreferente kultural gehienak erdaraz mintzatzen dira.

2.2. Hizkuntza-hautuak eta naturaltasuna

Altunak gazteak nola kultura globalean erabat txertatuta eta eroso dauden azaltzen du Argia aldizkariak egindako elkarrizketa batean. Haren aburuz, berdin da herri txikietako arnasgunekoa edo ezagutza kopuru baxuagoa duen hirikoa izatea; erreferentzia kulturalak denengana heltzen dira, eta hizkuntza aldetik denengan dute eragina. Horregatik, gazteen hizkuntza hautuak ulertzeko, hizkuntza-praktika eta hizkuntza-ideologia erreferentzia kulturalen markoan kokatzea proposatzen du (Basurto 2023: 31).

Ildo horretatik, Altunak eta Hernandezek gazteen euskara-erabilera ulertzeko gazteen hizkuntza-jokabidea azaldu dezaketen faktore sozialetan jartzen dute arreta, eta, bereziki, faktore soziokulturaletan. Autoreen helburua euskararekiko lotura testuinguruan kokatzea eta eragina duten kanpo-faktoreak aztertzea da. Hortaz, ikerketaren emaitzak hiru ardatzen inguruan egituratzen dituzte (Altuna eta Hernández 2021: 31-34):

- Hizkuntza-ideologia: ideien, errepresentazioen eta iritzien munduari dagokien kontzeptua da eta gure gizartean hizkuntza ulertzeko modua adierazten du. Gainera, kontzeptuak gazteek hizkuntza-politikaz edo euskalgintzaz duten iritzia jasotzen du.

- Hizkuntza-praktika: sortutako harreman-sareen ezaugarriei egiten die erreferentzia. Hots, zein gunetan edo espaziotan duen presentzia euskarak (ahozkoan, idatzizkoan edo bestelakoan). Familia eta hezkuntza formala dira hizkuntza-praktiken oinarri nagusia, eremu horietan araututa eta nahiko finkatuta baitago hizkuntza-praktika. Hala ere, ikertzailek diotenez “aurkitu ditugu familia euskaldunetako gazteak etxetik kanpo gaztelaniaz baino mintzo ez direnak, eta, alderantziz, familia ez-euskaldunetan hazi, eta euskaraz aritzeko hautua egin dutenak” (Altuna eta Hernández 2021: 37). Hortaz, ondorioztatu dute eskola eta familia ez direla aski euskararen erabilerari eusteko. Lagun taldean eta testuinguru zabalean (auzoa, herria edo erreferentziazko

beste taldeak) euskarak duen presentziaren eragina aski garrantzitsua da. Gainera, norbanakoak bere errealitatea ahal duen moduan kudeatzen du, eta hizkuntza-ideologian esandakoak hizkuntza-praktikarekin bat egiten du (Altuna eta Hernández 2021: 36-38).

- Hizkuntza-bizipenak: emozioei dagokien kontzeptua da. Alegia, erabilera sentituari eta performatuari¹ egiten dio erreferentzia. Hemen “zer hizkuntza naiz?”, “zer hizkuntza daukat?” eta “zer hizkuntza egiten dut?” dira aztergaiak. Kontzeptuak gazteen identitatea eraikitzean hizkuntzak hartzen duen tokia adierazten du. Egungo egoera argitu nahian, ikerlariek askotariko testigantzak eta bizipenak jaso zituzten, eta erantzun guztiak hiru multzotan sailkatu zituzten (Altuna eta Hernández 2021: 40):

- 1) Euskararekiko lotura sendoa duten hiztunak. Hizkuntzaren egoerarekiko kontzientzia dute, kezka eta ardura adierazten dute, baina egunerokoan muga eta oztopo ugari aurkitzen dituzte.

- 2) Azaleko lotura duten hiztunak. Nabarmentzeko da hauek hizkuntza ospakizunekin, festarekin eta talde-identitatearekin lotzen dutela. Horren parte izan nahiak aktibatzen ditu euskaraz egitera egoera berezietan.

- 3) Euskara harremanekin erabat lotzen duten hiztunak. Azken kasu honetan hizkuntza ez da agertzen pertsonen alderdi intimoari lotuta, ez eta ospakizun testuinguruan. Batez ere, harremanen sarean kokatzen dute hizkuntza, eta nabarmena da nola batzuetan hizkuntza-egoerak kudeatzea deserosoa eta nekagarria zaien.

Hori guztia, hizkera adierazkorraren baliabideak ikasgelan lantzen diren unean eta, oro har, ahozkoa lantzen duten proposamen didaktikoak burutzean, kontuan edukiko da, eta, horrenbestez, hizkuntzen egoeren eta hiztunen inguruko hausnarketak bultzatuko dira. Alegia, euskara erabiltzeko hautuaren eta zergatiaren inguruko hausnarketa.

¹ Hemen autoreak hizkuntzaren dimentsio subjektiboaren ertz bati egiten dio erreferentzia. Hots, ekintzen (performancea) eta emozioen arteko loturari. Hortaz, identitate performatiboaren gakoa gizabanakoen inplikazioa aktiboa da (Hernández, 2016, 186-187. or.)

Horren harira, azpimarratzekoa da orain arte euskalduntze prozesuaren erdigunean hiztun natiboa egon dela eta benetakotasunaren ideia barra-barra dabilela gazteen ahotan. Hala, ikerlariak hizkuntz ideologia tradizionalarekin apurtzeko zailtasunak ikusi dituzte eta: “hizkuntzaren patua naturalizazio prozesuei lotuta agertzen zaigu [...] familiaren, eta zenbait kasutan, gertuko komunitatearen transmisioari lotuta” (Hernández eta Santamaria 2021: 355). Beraz, naturaltasun nozioak hitz-jarioa edo modu arin eta errazean aritzeko joera adierazten du, eta ikerketan parte hartu zuten elkarrizketatuek esandakoaren arabera, gazteek euskara modu naturalean erabiltzen dute edo erabil dezakete, baldin eta (Altunak eta Hernandez 2021: 42):

- 1) Familian ikasi eta hitz egiten dutelako beti edo ia beti. Hots, hiztun natiboaren ideala txikitzen euskara familian jaso duen hiztuna da.
- 2) Testuinguru edo herri oso euskaldun batean bizi direlako.
- 3) Gaitasun handia eta jario erraza dutelako.
- 4) Euskararen “marka”² ezartzeko aukerarik ez dagoelako. Hots, euskarak testuinguru erdaldunetan duen marka soziala jasaten ez dutelako.

Erabilera apalaren atzean dagoen beste arrazoi bat modu naturalean hitz egiteko gaitasun eza da. Hortaz, naturaltasun edo benetakotasun nozioen esanahian eta ideia horiek ezkututzen dutena ikasleei helaraztea komenigarria litzateke, hizkuntza ideologiaren inguruko hausnartzea bultzatzeko. Alegia, komeni da ikasleek hizkuntzen egoerez eta egoera horien bilakaera ez naturalez jabetzea, eta horren barnean, komunitateak euskalduntzeko edo euskarari eusteko egin eta egiten dituen ahaleginak zein diren eta izan diren erakustea.

Izan ere, gizarte fenomenoak naturalizazioak gizartean dauden botere-harremanak, desorekak eta parekotasun ezak ezkututzen ditu (Altuna eta Hernández 2021: 43). Inertzia eta naturalizazioa batera doazen fenomenoak dira, eta, horregatik, beharrezkoa dugu lehen baino lehen ikasleei

² Douglassen teoria jarraikiz zenbait testuingurutan edo zenbait egoeratan, euskara orban bat izan daiteke, hizkuntza-ordena kolokan jartzen duen orbana. Horregatik markaren pisua jaso dezake hiztunak, eta horregatik sortzen da presioa orban hori desagerrarazi eta ordenara itzultzeko, hots, berriz gaztelaniara jotzeko (Altunak eta Hernández, 2021, 42. or.).

hausnarketa soziolinguistiko hori hurbiltzea, naturala den inertzia horri aurre egiten has daitezen. Beraz, laburbilduz, horrelako proposamen didaktiko batean helarazi beharreko mezua hau da: benetako euskara familiarik kanpo ikas daiteke, praktikatuz gero.

2.3. Gazte hizkerak eta erabilera

Gaur egun, gazte hizkera asko dago, errealitate soziolinguistiko adina. Amonarrizek dio gazte hizkeraz baino gazte hizkerez hitz egin behar dugula (Amonarriz 2008). Denok hauteman dezakegu Internet eta telefoniaren garapenak pertsonen arteko harremanetan izugarrizko eragina izan dutela eta, ondorioz, gazteen hizkera-motan ere bai. Hortaz, nabarmenak dira maila idatzian gertatu diren aldaketak bat-bateko mezularitza eta sare-sozialen erabilera orokortua dela eta.

Oro har, gazteen hizkeretan ohikoa da adierazkortasuna eta ekonomia bilatzea (Amonarriz 2008: 169). Gainera, ukaezina da hizkuntza hegemonikoek euskaran duten eragin handia. Hegoaldeko kasuan, adierazkortasunaren bila erdarara jotzeko joera oso hedatua dago. Adibidez, arnasguneak diren eremuetan hiztunen artean nahasketa edo kode aldaketa edo kode-alternantzia (KA) erabiltzea oso ohikoa da, eta hizkuntzaren ezagutzatik haratago doan fenomeno dela ondorioztatu da (Igartzabal 2014: 244). Horren ondorioz, testuinguru ezberdinetan ezaguna den euskañol-aren fenomeno dugu.

Iruñeko testuingurura itzulita, gazte askok ez dutenez euskara familian jaso eta, oro har, aipatutako giza esparruetan dagoen erabilera baxuaren ondorioz, ez dituzte hizkuntzak dituen adierazkortasun baliabideak ezagutzen. Ildo horretatik, Ablanedok honela dio: “kasu askotan ez dituzte euskararen berezko baliabideak ezagutzen, ez dizkiegu erakusten, eta ez dituzte inon entzuten” (2023: 89). Hala, D ereduko ikastetxetan gazteen artean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelera da, eta *euskañol*-a batzuentzat izan ohi da euskarari eusteko aukera bakarra. Ikasgelan, ikasle batzuk irakaslearekin euskaraz mintzatzen direnean, kode alternantzia eta kalko ugari erabiltzen dituzte, esan nahi dutena euskaraz adierazi ahal izateko.

Ikasleen euskara mailari eta ezagupenari dagokionez, komeni da, alde batetik, ikasgelan ahozko komunikazio lantzen denean, etxean euskara ikasi duen ikasleari zein etxean jaso ez duen ikasleari ahalik eta eredu gehien erakustea, ahalik eta erregistro gehien erabiltzeko gai izan daitezen. Bestetik, familian euskara jaso duenari etxean ikasitako euskara estimatzen irakastea beharrezkoa dugu, eta euskara etxetik ez dakarren horri euskararen lagunarteko eta familiako ereduak eman behar dizkiogu (Euskaltzaindia 2008).

Laburbilduz, askotariko ereduak eskaini eta ahozkoa modu sistematikoan³ lantzeko premia dago, ikasleak erregistro aldaeretan trebatzeko eta haien hizkuntza bizipenak areagotzeko. Kontzeptuak abstraktua dirudien arren, lan honetan euskararen erabilera sentituaren eta performatuaren ideari eutsiko zaio, ikasleen parte hartzea eta sormen gaitasuna erdigunean ezarriarik. Aurrerago azalduko den moduan, antzerkia izanen da aurrekoaren guztiaren ardatz.

Bestalde, Quintanillak euskararen erabileraren kontzeptuari heltzen dio eta helduen esperientzian oinarrituta egon dela azpimarratzen du. Hortaz, euskararen erabilera gazteen artean murriztagoa den ideia arras orokortua dagoela gogorarazten du (2014: 88). Soralueko gazteekin egindako ikerketa kualitatiboen bidez, bertako gazteek hizkuntzarekin eta, batez ere, euskarekin daukaten harremana aztertzen du. Garrantzitsua litzateke aztertzen duen hizkuntza hegemoniaren kontzeptuan sakontzea eta horren baitan sortzen diren dinamikak ulertzea euskararen erabileran hobeki eragiteko.

2.4. Kontzientzia metalinguistikoa

Hainbat autoreren ikerlanen berrikuspena egin ondoren Gasparrek kontzientzia metalinguistikoaren honako definizioa proposatzen du: hizkuntzaren estruktura linguistikoaren

³ Olasagarrek (2023, 11. or.) Bigarren Hezkuntzan ahozkoa lantzeko lan itzelaren sistematizazioa falta dela aitortzen du. Izan ere “ikasleen ahozkoaren irteera-profilaren zehaztapena eredu errealei erreparatuta egitea falta da, eta ahozkoaren ebaluazioaren ezaugarriak eta nolakotasunak zehazteke” daudela dio.

ulermena, hizkuntzari buruz hausnartzeko eta hizkuntza bera manipulatzeko gaitasuna (Gaspar 2024: 657).

Hori horrela, euskararen egoera soziolinguistikoa eta tokian tokiko errealitateak aintzat hartu behar dira Bigarren Hezkuntzan kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak praktikara eramateko. Hots, erregistro informala egunerokoan erabiltzen bada, hizkuntza manipulatzeko gaitasuna errazki garatuko dela argi dago.

Adibidez, gerta daiteke euskara familiako testuinguruan ikasi izana eta erregistro informala izatea egunerokoan erabiltzen den erregistro bakarra (iraganean, D eredua sistema publikoan egon baino lehen gertatzen ohi zena, esaterako).

Haatik, arestian aipatu bezala, Iruñeko testuinguruan askotan gertatzen dena da euskara bakarrik testuinguru akademikoan ikastea. Kasu horretan, hizkera informalaren ezaugarriak, euskalkiak, erregistro aldaerak edo euskarak dituen adierazkortasun-baliabideak ezagutzeko aukerak eskasak dira. Normalean gazteak hortaz jabetzen dira, eta naturaltasunenez hitz egiteko gaitasunik ez dutela konturatzen dira. Zentzu horretan, interesgarriak dira kontzientzia metalinguistikoaren inguruan egin diren ekarpenak, hizkuntza manipulatzeko abilezia garatzeko hainbat estrategia didaktikoren inguruko hausnarketa proposatzen dituztelako.

Aipatu behar da kontzientzia metalinguistikoa garatzeak ikaskuntza kontzientea gertatzea dakarrela (Gaspar 2024: 656). Hortaz, eratu den proposamen didaktikoan zehar kontzientzia metalinguistikoak barne hartzen dituen kontzientzia fonologikoaren, morfologikoaren eta pragmatikoaren garapena bultzatuko dira.

Adibidez, palatalizazioa lantzerakoan, kontzientzia fonologikoak adierazten duen unitate fonologikoak (fonemak eta silabak) manipulatzeko eta horien gainean hausnartzeko abilezia bultzatuko da. Horretarako, hainbat azalpen eta ariketen bitartez, ikasleek hizkera informalaren propioak diren aldaera fonologikoez (adibidez, hipokoristikoen erabileraz) jabetu ahalko dira. Modu horretan, hainbat hotsen aldaera identifikatzen ikasiko dute, gero berek hitzen hotsak manipulatzeko gaitasuna gara dezaten.

Hizkera propioa sortzeko (lagunarteko hizkera, adibidez), kontzientzia morfologikoaren garapena garrantzitsua da, hitzen morfologia eta, bereziki, hizkera adierazkorrean dauden (balia)bideak lantzeko. Horien adibide dira: hitzak laburtzeko joera, hitz errepikapenak eta biraoen egitura.

Hirugarrenik, kontzientzia pragmatikoaren garapena bultzatuko da egoera komunikatibo bakoitzean dauden arau sozialen, helburuen eta komunikazioaren efektuen gainean hausnartzeko bidea eskaintzen baitu. Alegia, hizkuntzaren aldaeren ezaugarriak testuinguru ezberdinetara egokitzen ikasiko dute eta, horretarako, antzezlaneko testuak behar komunikatiboetara moldatzen ikasiko dute.

Laburbilduz, Iruñeko testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuz, kontzientzia metalinguistikoen ekarpenak interesgarriak dira, horrelako proiektu batean atal teoriko-praktiko baten bidez hizkera informalaren adierazkortasun-baliabideetan arakatzeko eta ikasi berritako baliabide horiek erabiltzen ikasteko.

2.5. Antzerkia hezkuntzan

Bigarren Hezkuntzan Euskara eta Literatura ikasgaian antzerkia lantzeko aukerei erreparatuz gero, 71/2022 FORU DEKRETUAN jasotzen diren ikaskuntza egoeren planteamenduak bat dator ikasturteko hiruhileko batean antzerki proiektu bat garatzearekin. Izan ere, curriculumeko ikaskuntza egoerek funtsezko konpetentzien eta XXI. mendeko erronken arteko loturei esanahia emanen diete. Hortaz, ikasleak jakintzak eskuratzeari baino konpetentziak garatzeari ematen dio garrantzi handiagoa curriculum berriak. Alegia, diziplinarteko proposamen kontestualizatuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak planteatzea eta sortzea eskatzen du.

Halaber, curriculumak ikasleak gizarte eragile gero eta autonomoagoak izatea du helburu eta, hori izanen da proposamen didaktiko honen xedeetako bat. Hots, elkarlanean aritzea antzezlan interesgarriak taulartzeko. Ebaluazio irizpideek, aurrerago aipatuko den moduan, bukaerako emaitza, eta, proiektuan zehar landutakoa gaitasunen garapena barne hartuko dituzte.

Antzerkiak nerabeekin lantzeak aukera asko sortzen dituelako hautatu dut: besteak beste, ahozkotasuna eta ahoskera hobetzea edo erregistroen aldaerez jabetzea. Marinek antzerkiak sormena,

ahozko komunikazioa eta gorputz-adierazpena lantzeko aukera emateaz gain, gazteak dibertitzeko proposamen paregabea dela dio (2016: 476). Ildo beretik, Einesek eta Mantovanik (2018) antzerkia gazteak engaiatzeko eta parte hartzeko aukera arras egokia dela diote. Antzerki ariketek, dibertigarriak izateaz gain, sormena eta berezko komunikazioa dute ezaugarri, eta, gainera, etorkizuneko bizipen kulturalen oinarritzat har daitezke (Eines eta Mantobanik, 2018: 18).

Marinek antzezlan ugaritan parte hartu du, itzultzaile eta zuzendari laguntzaile lanetan. Bere aburuz, ahoskera landu, ikasi eta irakatsi daiteke. Hala ere, eskolan eta, oro har, irakaskuntzan ahoskera eta prosodia oso gutxi lantzen da, eta, horrenbestez, irakasleak askotan hori ebaluatzen irizpide faltan dabilta (Marin 2016: 471). Marinek ikastetxean antzerkian murgiltzen hasteko honako proposamena egiten du:

Errealitatetik abiatuta (idatzitik, alegia), zubiak eraikitzea paperaren eta ahozkoaren artean, eta horretarako zer hoberik ahots gorako irakurketarekin hastea baino. Ibilbidearen lehen pausoa da. Fase honetan oso garrantzitsua da testu onekin lan egitea, ikasleak aukera izan dezan, hitz eta mezu egokiak asmatzen ibili gabe, paperari ahotsa jartzeko, hitz ederrak barru-barruan sentitu eta grabatzeko; haren lan bakarra testua musika bihurtzea da (Marin 2016: 471).

Bestalde, irakasleak ikastetxean hori lantzeko plangintza falta dutela adierazten du eta, beraz, norberaren esku geratzen dela horrelako proiektu bat antolatzea eta aurrera eramatea.

Urteetan Garaziko gazteak antzerkian engaiatu dituen Antton Lukuk gogorarazten du antzerkia Euskal Herrian literatura generoen artean gutxien jorratutakoa dela eta hizkuntzaren borroka egiteko gune aproposena dela (Luku 1999: 299). Horrez gain, gazteekin urteetan antzerkia sortzen ibilia den irakasleak antzerkiaren dimentsio poetikoa azpimarratzen du, eta euskaraz, bereziki, sor daitezkeen irudiak nabarmentzen ditu. Biziki interesgarriak dira teatrogilearen ekarpenak benetako teatroaz mintzatzen denean. Hots, bere iritziz, benetako antzerkia inpaktua, sorpresa, tabu hauste, errebelazio, edo atxikimendua eragiten duen antzerkia da (2013: 891-892).

Proposamen didaktikoan lehendabiziko atalean antzerkiaren historia eta, bereziki, euskal antzerkigintzari begirada bat eskainiko zaio. Horri dagokionez, Piarres Larzabal apezaren idazlanak aipatzea beharrezkoa da. Etxeberriak (2006) idazleari eskainitako ikerketan honela dio:

Gutxiestea jasan duen hizkuntzan idaztea, une batzuetan, hautu formala izan zen. Kultura nagusiaren ondoan, hartatik elikatuz, literatura berri bat sortzen aritu zen Larzabal. (Etxeberria, 2006: 217).

Larzabalen lanak ertz asko ditu, eta ez da lan honen funtsa horretan sakontzea. Hala ere, esan beharra dago idazlearen iritziz antzerkia dela memoria zaintzeko tresna egokiena, eta memoria horren zentzuaren bila ibili zela (Etxeberria, 2006: 217).

Lan honetan eratu den proposamena didaktikoak helburu xumea du, eta gazteak antzerki generoan trebatzeko Goenagak egindako Antzerki Gida (2021) erreferentzia gisa erabiliko da. Aurrerago azalduko denez, bertan dauden aholkuak, inprobisazio eta ikerketa ariketak oso baliagarriak dira. Goenagaren ustez, antzerkia baliabide hezigarri indartsua da, ahozkotasuna, adierazkortasuna, balioak eta sormena lantzen laguntzen duelako. Horrez gain, ikasleek dituzten kezken inguruan hausnartzeko espazio paregabea eskaintzen du, baita umorea lantzeko eta ikasleen eguneroko arazoak askatzen laguntzeko ere (Goenaga, 2021: 121).

Beraz, irakasleon ardura izanen da hizkuntza-erregistro ezberdinak modu egokian lantzea metodologia komunikatiboen eta aktiboen bidez.

Dena den, kontuan izan behar da sormen proiektuak bideratzea ez dela ataza erraza. Hala ere, premiazkoa da irakasleok horrelako proiektuak gidatzeko trebetasuna garatzea ahozkotasuna eta erregistro aldaerak lantzeko.

Bukatzeko, onuragarria litzateke antzerki munduan gehiago murgiltzea eta ikasleak antzerki ikuskizunetara eramatea. Hala, ikasleen euskal kultur erreferentziak eta bizipenak areagotuko lirateke eta antzerkiaren xarma bizitzeko aukera izango lukete.

3. Proposamen didaktikoa

3.1. Testuingurua

Iparalde ikastetxea Iruñeko Sanduzelai auzoan dago, espazioan tren geltokiak eta Arga ibaiak mugatzen dute, eta honako auzoen ondoan dago: Buztintxuri, Arrotxapea eta Donibane.

2022ko datu soziologikoen arabera Sanduzelaiko eta Buztintxuriko biztanleen % 20 etorkinak dira. Hortaz, aniztasun kultural nabaria duten auzoak dira. Bi auzo horietan Iruñeko beste auzo batzuetan baino pobrezia tasa altuagoak daudenez, kontuan hartuko dira familia batzuetan egon daitezkeen zaugarritasun egoerak.

Hizkuntza ohiturei dagokionez, ikasleen arteko solasaldietan gehien entzuten den hizkuntza gaztelania da (%98,1ek aitortzen du gaztelaniaz aritzen dela lagunekin). Ikastetxean egin zen azken galdetegiaren arabera, ikasleen %4,7ak bakarrik aitortzen du lagunekin euskara erabiltzen duela. Euskara mailari dagokionez, %31,6ak maila altua duela uste du, %71,6ak ertaina, eta %4,1ek baxua. Gaztelaniaz, berriz, %83,4k uste du maila altua duela, eta %21,6ak ertaina.

Proposamen didaktikoaren abiapuntua Bigarren Hezkuntzako masterreko praktikaldian zehar hizkera adierazkorra lantzeko hainbat saioen diseinua izan da. Hortaz, DBH 3. mailako bi talderekin aritu nintzen, 22 eta 20 ikaslekoak. Ikasle batek baino gehiagok euskaraz hitz egitera bultzatzen zituzten besteak. 22 ikasleko taldearekin osotara 6 saiotan zehar ibili nintzen, praktikaldiko esku-hartzea barne.

Euskararen erabilerari dagokionez, ikastetxean egindako galdetegiaren emaitzek ongi islatzen dute bi taldeen hizkuntza ohitura: haien artean komunikatzeko gehien erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da. Ondorioz, euskaraz mintzatzen direnean, batzuetan euskara zuzena darabilte. Halere, kode-alternantziak maiz erabiltzen dituzte, kalko ugari ere egiten dute, eta, oro har, adierazkorra ez den euskara darabilte.

Bestalde, bi taldeetan beren familien euskara ezagutza mailari buruz galdetzean, talde bakoitzeko lau edo bost ikaslek altxatu zuten eskua, beren gurasoetako batek euskaraz hitz egiten duela adierazteko.

Proposamen didaktikoaren diseinua garatu ahala, DBH 4. mailan lantzeko aproposagoa dela ondorioztatu da, DBH. 1.2. eta 3. mailetakoa ikasleekin ahots gorako irakurketa ongi lantzen bada.

3.2. Helburuak

3.2.1. *Etaparen helburuak*

Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapako FORU DEKRETUAK irakaskuntzen curriculumak ezartzen dituen helburuetatik honako hauek landuko dira proposamen didaktikoan (71/2022 FORU DEKRETUA, 2022:256):

- a) Beren betebeharrak erantzukizunez onartzea; beren eskubideak baliatzea, gainerakoekiko begirunez; tolerantzia, lankidetzeta eta pertsonen eta taldeen arteko elkartasuna lantzea.
- b) Diziplina, ikasketa eta laneko ohiturak garatu eta finkatzea, bakarkakoak zein taldekoak, beharrezkoak baitira ikaskuntza lanak eraginkortasunez egiteko.
- c) Sexuen arteko desberdintasuna eta haien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa dakarten estereotipoak arbuiatzea.
- d) Norberaren gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren esparru guztietan eta besteeikiko harremanetan; indarkeria, mota guztietako aurreiritziak eta jokabide sexistak arbuiatzea, eta gatazkak bakebidez konpontzea.
- e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarritzko abileziak garatzea, zentzu kritikoaz ezagutza berriak eskuratzeko
- f) Espiritu ekintzailea eta bere buruarekiko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bere gain hartzeko gaitasuna garatzea.
- g) Ahoz nahiz euskarazko testu eta mezu konplexuak ulertu eta zuzen adieraztea.
- j) Norberaren eta gainerako pertsonen kulturaren eta historiaren oinarritzko alderdiak ezagutzea, balioetsi eta errespetatzea.
- k) Norberaren gorputzaren eta gainerakoenen funtzionamendua ezagutu eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza eta osasun ohiturak sendotzea.

- l) Arte-sorkuntza aintzat hartzea eta arte-adierazpen guztien hizkuntza ulertzea, hainbat adierazpen eta irudikapen baliabide erabilita.

3.2.2. Helburu orokorrak

- a) Antzerkiaren inguruko ikuspuntu kritikoa garatzea
- b) Antzerkiarekiko kuriositatea edo atxikimendua sortzea
- c) Elkarlanean aritzeko gaitasuna hobetzea
- d) Euskararen erabileran eragina izatea

3.2.3. Helburu zehatzak

- a) Euskarak dituen adierazkortasun-baliabideetan arakatzea eta trebatzea
- b) Erregistro informala eta formalaren ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzen ikastea
- c) Antzerki gidoiaren egitura ezagutzea
- d) Antzerki gidoiak idazten edo moldatzen ikastea
- e) Antzezlan sorkuntza prozesuaren urratsetan trebatzea eta plangintza bat aurrera eramaten ikastea
- f) Gorputz adierazpenean eta ahazkotasunak barne hartzen dituen abileziak garatzea

3.3. Metodologia

Eratutako proiektuan helburuak lortu diren ala ez ziurtatzeko pretest baten eta posttest baten alderaketa egingo da proposamen didaktikoaren eraginkortasuna nolakoa izan den aztertzeko. Hasierako pretestak ikasleen alde aurreko gaitasunak eta ezagupenak zein diren ikusteko balioko du. Antzezlan gidoi laburra aukeratu edo idatzi eta antzeztu beharko dute. Horren ondoren, antzerki

proiektuaren garapena egonen da, eta, bukatzeko, postesta proiektuko emaitza finala bera izanen da, hots, elkarlanean landutako antzezlanaren taularatzea.

3.3.1. Ebaluazio irizpideak

Beraz, arestian aipatutako helburu zehatzak zenbateraino bete diren neurtzeko eta, aldi berean, ikasleen lana ebaluatzeko honako adierazleak erabiliko dira:

1. **taula.** Proiektua ebaluatzeko irizpideak.

Irizpideak	Bikain	Oso ongi	Nahikoa	Gutxi
Antzezlan baten inguruko iruzkin kritikoa	Argudio testuaren atalak ezagutzen ditu, eta komunikazio adierazgarria lortzen du.	Argudio testuaren atalak ezagutzen ditu, nahiz eta akatsak egin formatuan, erregistroan edo informazioaren banaketan.	Argudio testuaren atalak ezagutzen ditu, baina zailtasunak ditu komunikazio adierazgarria lortzeko.	Argudio testuaren atalak ez ditu ezagutzen, eta mezu adierazgarria komunikatzeko zailtasun latzak ditu.
Antzezlan I: testua, estiloa, generoa eta estruktura	Antzezlanaren atalak ezagutzen ditu eta komunikazio adierazgarria lortzen du.	Antzezlanaren atalak ezagutzen eta ongi erabiltzen ditu, nahiz eta estilo, genero edo estrukturan aldetik akatsak egin.	Antzezlanaren atalak ezagutzen ditu, nahiz eta estilo, genero eta estruktura aldetik antzezlanaren mezua komunikatzeko zailtasunak dituen.	Ez ditu antzezlanaren atalak ezagutzen edo estilo, estruktura eta generoa ez dira egokiak antzezlanaren mezua komunikatzeko.
Antzezlan II: testua eta erregistro aldaerak	Erregistro aldaerak mezu adierazgarria komunikatzeko erabiltzen eta menperatzen ditu.	Erregistro aldaerak erabiltzen ditu, nahiz eta akatsak egin.	Erregistro aldaerak erabiltzen ditu, baina zailtasunak ditu horiek erabiltzeko.	Ez ditu erregistro aldaerak erabiltzen edo erabiltzen dituenak ez dira egokiak mezua modu adierazgarrian komunikatzeko.
Antzezlan III: adierazkortasun-baliabideak	Antzezlanean egokiak diren adierazkortasun-baliabideak modu adierazgarrian erabiltzen ditu	Antzezlanean egokiak diren adierazkortasun-baliabideak erabiltzen ditu, nahiz eta akatsak egin	Zailtasunak ditu antzezlanerako egokiak diren adierazkortasun-baliabideak erabiltzeko	Ez ditu adierazkortasun-baliabideak erabiltzen edo erabiltzen dituenak desegokiak dira antzezlanean
Antzerkia I: ahozkotasuna		Orokorrean, erritmoa eta ahots tonua onak dira, baina ez du ongi	Zenbait momentutan erritmoa ez da behar lukeena bezain arina eta	Ahots tonua monotonoegia da eta erritmo motela da. Ez du ongi ahoskatzen beti edo

	Ahoskera, tonua, bolumena, erritmoa eta doinua bikainak dira.	ahoskatzen beti edo erabiltzen duen bolumena ez da entzungarria.	bizia. Ahotsaren tonua nahiko monotonoa da edo bolumena ez da entzungarria.	erabiltzen duen bolumena ez da entzungarria.
Antzerkia II: gorputz adierazpena	Eskuekin egindako imintzioak, gorputzaren posizioa eta begiradaren norantza apartekoak dira.	Orokorrean, eskuekin egindako imintzioak, gorputzaren posizioa eta begiradaren norantza onak dira. Halaber, ez die entzuleei begirutzen.	Eskuekin egindako imintzioak eskasak edo gehiegizkoak direnez, aurkezpena hobetu daiteke. Gorputza oso zurrin edota urduri adierazten du.	Ez dio publikoari begiratu, alboz edota bizkarra emanez egin aritu da.
Antzerkia III: antolakuntza eta ekimen eszenikoa	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa bikainak.	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa ona.	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa nahikoa.	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa falta da.

Antzezlan baten taularatzea izango da proposamen didaktikoaren amaierako proiektua. Hortaz, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan (POI) metodologia erabili da ikasleen parte-hartze aktiboa, proiektuarekiko motibazioa, oro har, eta haien interesa sustatzeko eta lortzeko.

Ildo beretik, metodologia komunikatiboa lehenetsiko da, gaitasun komunikatiboaren garapena proposamenaren funtsean kokatuta. Modu berean, ikaslearen ikas-autonomiaren garapena eta lan kooperatiboa bultzatuko dira, fokua hizkuntzaren alderdi sozio-kulturalean ezarrita.

Proiektua gauzatzeko txosten bat erabiliko da. Bertan ikasleek proiektuaren azalpen orokorra, sekuentziazioa, garapena, baliabideak, ebaluazio irizpideak eta proiektuaren bestelako xehetasunak eskura izango dituzte.

Gainera, beste herri zein hiri batzuetako ikasleekin trukea egingo da, tokian tokiko adierazkortasun baliabideak beste ikasle batzuekin partekatzeko. Baliabide truke horiek gutunez edo posta elektronikoaren bidez egingo dira.

3.3.2. Baliabideak

- Chromebook-ak edo bestelako ordenagailuak.

- Interneteko sarbidea.
- Liburu eta gidak: *Gora teloia! Antzerki gida. Antzerki. Le théâtre. Biraoak. Nafarroan bilduak. Euskal Herriaren Yakintza Literatura popular del País Vasco II.*
- Antzerki testuak (zehazteko).
- Antzerki testu webguneak:
<https://www.ganbila.eus/liburuak>
<https://mikelmartinez.eus/teatrotestuak/euskeraz-sortuak>
- Primeran plataforma.
- Entseguak egiteko gela bat talde bakoitzeko.
- Eszenografia sortzeko materialak.
- Pertsonaiak karakterizatu eta janzteko makillajea eta arropa.

3.4. Proiektuaren sekuentziazioa

Proiektuan antzerkiaren inguruko atal guztiak Gora Teloia! Antzerki Gidan (Goenaga 2021) eta Antzerkia. Le Théâtre (Goenaga eta Barea 2021) oinarrituak daude eduki teoriko zein praktikoetan. Proposamen didaktikoa gauzatzeko, modu eskematiko eta laburtuan aurkezteko moldatu dira.

2. **taula.** Proiektuaren atalen sekuentziazioa

Atalaren izena eta lantzeko saio kopurua	Edukiak
1. Antzerkiaren historia (4 saio)	• Grezia klasikoa • Erromatarak • XVI-XVII mendeetan antzerkiaren gorakada. • Euskal antzerki kostunbrista eta Euskal Pizkundea

2.Estiloa, generoa eta estruktura (3 saio)	• Estiloa: mimoa, sudur gorria-pailazoa, maskara, txotxongiloak eta testu antzerkia • Generoa: tragedia, komedia eta drama. • Estruktura: planteamendua, korapiloa eta amaiera
3.Euskal antzerkia gaur egun eta egileen testuak (8 saio)	• Artistak eta konpainiak • Euskal egileen testuak • Topaguneak eta jardunaldiak
4.Adierazkortasun-baliabideetan arakatzea (8 saio)	• Hizkuntza aldakortasuna eta erregistroen araberako ezaugarriak: zuketa, xuketa, hiketa (toka, noka) • Adierazkortasun-baliabideak
5.Antzerkia lantzen eta eraikitzen hasi (12 saio)	• Egile batek idatzitako antzezlanaren taularatu edo taldean istorio bat sortu. • Zer kontatu? Nola kontatu? • Konfliktua/Gatazka zehaztu • Talde lana bideratzen hasi: helburuak zehaztu eta lan ardurak banatu • Antzezlanaren eraiki: inprobisazioak, entseguak, pertsonaiak landu, eszenografia, jantziak, tresneria, musika, efektu espezialak, makillajea, argiztapena, kartela, zabalkundea.

Iturria: Gora teloa! ANTZERKI GIDA (Goenaga, A; 2021) eta Antzerkia. Le Théâtre (Goenaga,A; Barea, P; 2021)

3.5. Proiektuaren garapena

3.5.1. Antzerkiaren historia

- Grezia klasikoan antzerkiak eta bere inguruan antolatzen ziren jaialdiak eta festek, sekulako garrantzia izan zuten. Jainko-jainkosen omenez egiten ziren antzerki emanaldiak eta agintariak eta herri osoak joaten ziren antzerki lehiaketetara (Goenaga, 2021; 13). Dionisia izeneko antzerki jaialdia instituzionalizatu zen. Bertan Dioniso jainkoa ohoratzen zen. Tragedia, komedia eta antzerki satirikoa izan ziren han sortu ziren hiru drama-generoak. Atenasek bere kolonia ugarietara esportatu zuen antzerki jaialdia. Autore tragikoen artean, Sofokles, Eskilo eta Euripides dira garrantzitsuenak. Hiruren artean ehundaka obra idatzi zituzten, eta horietan sufrimendua, ezbeharren aurreko jarrera tinkoa, mito eta heroi greziarrak, maitasuna edo kezka filosofikoak dira istorioaren ardatz.. Urteko data jakinetan egiten ziren antzerki jarduerak: Lenea-etan (urtarrilaren amaieran Atenasen egiten ziren txapelketa dramatikoak), Landatar Dionisia jaietan (abenduaren amaieran Atenasetik kanpo egiten ziren txapelketa tragiko eta komikoak) eta Dionisia handietan (Atenasen martxoaren amaieran egiten ziren txapelketa ikusgarrienak). Autore komikoen artean garrantzitsuenak Aristofanes da. Berrogei lan satiriko-kritiko idatzi zituen, eta gizarteak zituen utopiei, ideia erreformistei nahiz Sokrates filosofoari egin zien barre obra horietan (Argia 2002). Aipagarria da maskararen erabilera, erritu eta ospakizunetan erabiltzen zena. Batzuek dionisiar kultuan kokatzen dute bere jatorria. Aztarna gehienak K.a. V. mendeko ontzietan egindako margolanetik datoz, hala nola zuhaitz batetik zintzilikatuta ageri den jainkoaren maskara ageri duena. Alta, garaiko maskararen aztarna errealik ez zaigu iritsi, material organikoz eginak baitziren: lihoz, egurrez edo larruz. Beraz, ez ziren irauteko eginak, Dionisioren aldarean uzten ohi baitzituzten opari, antzezlanen ostean.

- Erromako antzerkia:

Erromatarrek kutsu erlijiosoa kendu eta jendearen egunerokotasunera hurbildu zuten antzerkia. Pertsonaiak, jainko-jainkosa edo errege-erreginak izan beharrean, zerbitzari eta morroiak izaten ziren. Erromatarren tradizioan, greziarregandik hartua, antzerki literarioa pertsonaia bat nola sentitzen zen "ikustea" ahalbidetzen zuten aurpegi-adierazpen oso markatuak zituzten maskarak

erabiltzen zituzten, eta gizonak bakarrik osatutako taldeek antzeztzen zuten. Batzuetan, maskara horiek paper jakin baterako berariaz eginak izaten ziren, eta, beraz, aktore batek hainbat paper antzeztu zitzakeen, maskara aldatuta. Emakumeen paperak gizon trabestituek antzeztzen zituzten.

Erromatar antzerki literarioaren tradizioa Senekaren tragediek bereziki ongi irudikatzen dute latinezko literaturan. Hala ere, Senekaren tragediak antzezteko inguruabarrak ez daude argi; aditu batzuek uste dute gutxitan irakurtzen zirela audientziaren aurrean, eta beste batzuek uste dute produkzio osoak egiten zirela. Antzerki literarioa baino ezagunagoa zen *mimus* antzerkia, generoak desafiatzen zituen eta inprobisazio askez, hizkuntzaz eta tonuz igotako txistez, sexu eszenez, akzio sekuentziaz eta satira politikoz osatutako agerraldiak aurkezten zituen, dantza, malabar eta akrobaziekin batera. Antzerki literarioan ez bezala, *mimus*-a maskararik gabe antzeztzen zen, eta interpretazioan errealismo estilistikoa sustatzen zuten (“Antzinako Erromako antzerkigintza” 2023).

- XVI-XVII. mendeetan antzerkiaren gorakada ikaragarria izan zen Europa osoan zehar:

Espanian, “Urrezko Mendea”; Erresuma Batuan, antzerki isabelinoa, Shakespearearena, besteak beste; Italian, *Comedia dell Arte*, inprobisazio antzerki barregarria; eta, Frantzia, Molière antzerkigile ospetsua. Horiek dira garai hartan antzerkiak izan zuen garrantziaren adibide. Mende horietan antzerkiak utzi zuen arrastoa aipagarria da, bai antzokietan, bai antzezteko moduan, eta baita testuetan ere. Horrekin batera, herrietan, antzerki herrikoiak, erlijiosoak eta festetako dantza eta komeriak egiten jarraitzen zuten (Goenaga 2021).

Zuberoako pastoralak, eta baita maskaradak ere, Erdi Aroko antzerki zaharren arrastoak dira. Beranduago, XVI. eta XVII. mendeetan antzerki liturgikoa egiten zela frogatzen duten dokumentuak badaude, hala nola antzezipen baterako baimen-eskaerak, antzezipen baten aipamenak edo ordainketa-agiriak. Gaur egun, bereziki, Zuberoan, antzerki herrikoien adierazpenek bizirik jarraitzen dute, batez ere pastoralak, bertako herri-antzerkiak. Urkizu ikertzaileak lan sakonak egin ditu, bai Iparraldeko, bai Euskal Herri osoko antzerkiari buruz. Haren ekarpenei esker, antzerki herrikoia buruzko hainbat testu, azalpen eta adierazpen jaso dira. Lehen pasterala 1634an erregistratu zen Atharratzen. Pastoralak ospakizun handi bat izaten

ziren, herriko plaza zabalean egiten ziren, eta herritar askok hartzen zuten parte. Antzezlanak bertsotan kantatzen ziren, eta musika zein dantzek garrantzi handia zuten (Goenaga eta Barea 2021).

Pastoraletan bi alderen lehia taularatzen da: alde ona (kristauak) eta alde txarra (turkoak). Beti alde onak irabazten du. Eszenatokian hiru ate daude: onak ezkerreko ate urdinetik ateratzen dira, turkoak eskuineko ate gorritik, eta deabrua goiko aldean dagoen ate zuri txiki batetik agertzen da. Musikariak ere eszenatokian bertan egoten dira. Hasieran, pastoraletan gizonak bakarrik aritzen ziren, baina XX. mendearen erditik aurrera emakumeek ere parte hartzen dute. Lehen gaitegi nagusia erlijiosoa zen, santuen bizitzak eta antzeko gaiak lantzen baitziren. Gaur egun, ordea, pastoralen gaiak gaurkotasunari lotuago daude: gai sozial eta politikoak jorratzen dira, gaur egungo errealitateari erreparatuta (Goenaga eta Barea 2021).

- Euskal antzerki kostunbrista eta euskal pizkundera:

Euskal Pizkundera mugimendu kultural eta politiko euskaltzale emankorra izan zen, XIX. mendeko bigarren erdialdetik XX. mendeko lehen erdialdera arte luzatu zena.

XIX. mendeko antzerkiaren erreferente nagusia Marcelino Soroa dugu [...] Soroaren euskal antzerkiarekin batera, urte askoan bizirik iraun duen eztabaida azaleratu zen, hau da, dibertimendu hutseko tokiko antzerkiaren eta unibertsalaren, hots, sakonagoa den antzerkiaren artekoa [...] Jedozein modutan, euskararekiko zaletasuna aldarrikatzen zen garai hartan, antzerkia egitearen arrazoi garrantzitsuenetako bat euskara sustatzea zela. (Goenaga eta Barea 2021: 18-20).

Soroak antzezlan asko idatzi zituen: *Gabon* (1880), frantsesetik itzulitako *Antton Kaiku* (1882), *Au ostatuba* (1884), *Alkate berriya* (1884), *Urrutiko intxaurrak* (1886) eta *Abec Istillubac!* (1889, besteak beste. Ildo beretik, Toribio Alzaga euskal antzerkiaren sustatzailerik garrantzitsuenetakoa dugu. Bere taldearekin antzezlan ugari taularatu zuen Donostian zein Gipuzkoako herrietan, eta euskal antzerkiarekiko zaletasuna indartzen lagundu zuen (Goenaga eta Barea 2021). Alzagak euskal antzerkia mundura begira jarri zuen, adibidez, Shakespeareren *Macbeth* euskarara itzuli eta egokitu zuen. Hortaz, ez zen garaiko antzerki gai ohiko edo tipikoekin konformatu. (Goenaga eta Barea 2021). Bestalde Katalina Eleizegiren antzezlanak

ditugu. Batzuen iritziz, euskal antzerki modernoaren ama izan zen. Idatzi zituen lanek sariak eta kritika onak jaso zituzten: *Garbiñe* (1917), *Loreti* (1918), *Gaine* (1929), *Yatsu* (1934). 1932an Antonio Maria Labaienek antzerki-testuen lehiaketa antolatu zuen Antzerti aldizkarian. Ondoren, 1934an Eusko Antzerti Eguna ospatzen hasi ziren. Ekimenak sekulako arrakasta izan zuen. Sari-banaketa, San Telmo Museoan ospatzen zen, eta ondoren Victoria Eugenia eta Kursaal antzokietan antzerki-emanaldiak hasten ziren, eta asteetan ikusgai egoten ziren. Hiru jaialdi ospatu ziren 36ko gerra hasi aurretik (Goenaga eta Barea 2021: 22).

Iparraldean, berriz, antzerki-adierazpen tradizionalaz gain, Lehen Mundu Gerraren ondoren, herrietan antzerki taldetxoak sortzen hasi ziren Elizaren babesean. Antzezlan gehienak komedia arinak ziren. 1921ean, kazetari gazte batzuek eta apaiz abertzaleen talde batek Baionan sortu zuten *Eskualduna* aldizkarian argitaratu zituen garai hartako idatzi eta antzeztu ziren hainbat antzezlan. 1939an, 36ko gerraren ondorioz, aldizkariak argitaratzeari utzi zion, 1950etik 1976ra berriro kaleratu zuten; bigarren garai hartan, beste askoren artean, Piarres Lartzabal eta Telesforo Monzónizan ziren sustatzaileak (Goenaga eta Barea 2021: 24).

1953ko Santo Tomas egunean, *Ramuntxo* izeneko antzezlanak aurkeztu zuten lehen aldiz Donostiako Kursaal aretoan. Handik aurrera, urtero antzezlan berri bat taularatzen zuen Donostiako Antzoki Zaharrean. Jarduera hori 1970ean amaitu zen. Donostian sortutako antzerki mugimendu hark Gipuzkoako hainbat herritara zabaltu zuen euskal antzerkiaren mugimendua. Sarritan, eliza izan zen ekimen horien babesle, eta ohikoa zen herri horietan urtean hiru edo lau emanaldi eskaintzea (Goenaga eta Barea 2021:24).

Ipar Euskal Herrian, bi mundu gerren ondoren antzerkiak berriro indarra hartu zuen. Piarres Lartzabal izan zen garai hartan antzerki idazlerik oparoena, ehun testutik gora idatzi baitzituen. Horien artean *Xirristi Mirristi* (1952), *Bordaxuri*, (1952), *Senperen gertatua*, (1964), *Orreaga*. *Pastorala gisarako ikusgarria* (1964) edo *Ibañeta* (1968).

3.5.2. Antzerkiaren estiloa, generoa eta estruktura

3.5.2.1. Estiloa

3.taula. Antzerki mota batzuk.

Estiloa	Azalpena
1. Minoa	Hitzik gabeko antzerkia da. Gehienetan aktore bakarra izaten da, eta keinuen bidez adierazten dira egoera eta ekintza guztiak. Oso mugimendu, keinu eta imintzio garbiak eta landuak egin behar dira, kontakizuna eta pertsonaiari gertatzen zaizkion gorabeherak publikoarengana ondo iristeko, eta baita sentimendu eta emozioak azaleratzeko ere. Mimo aktoreek gorputz adierazpena asko lantzen dute, hitzik gabe ikuslea gehienetan barregarriak diren egoeratan murgiltzeko. Baina mimoek ez dute zertan beti umoretsuak izan. Antzinatek egiten den antzerki mota da. Baina XX. mendean, Frantzia batez ere, mimo modernoak lantzen hasi zen. Hala ere, mimo ezagun asko izan dira zineman eta telebistan, esate baterako, Charles Chaplinen Charlot pertsonaia edo Rowan Atkinson aktorearen mister Bean pertsonaia mutua.
2. Sudur-gorria. Pailazo- clown	Sudur gorria, dagoen maskararik txikiena dela esan ohi da. Pertsonaia berezi bat, izaera xaloarekin, edo bere begirada biziarekin. Badira mota askotako pailazoak: azkarrak, lotsagabeak, traketsak, bihurriak edo tontoloak. Nork bere pailazoa du. Barrutik ateratzen den pertsonaia da, baina pertsonaia hori landu egin behar da. Nola hitz egin, nola ibili, zein keinu dituen ohikoak, edo esate baterako, muturreko egoera batean zer egingo duen probatu, eta zuen pailazoa nolakoa den bilatu. Pailazoen mundua barregarria da oso, baita maitagarria ere, eta hunkigarria. Pailazoak bere “mundu berezia” sortu behar du, mundu magikoa, bere izaera garatzeko. Gehienetan gauza txikiez jabetzen da, eta arazoak nonahi gertatzen zaizkio, espero gabeko kontuekin. Txantxak egiten ditu, baita txiribuektak, edota malabarak, erorketak edo magia jokoak. Musika ere jotzen du eta...
3. Maskarak	Historian zehar maskara antzerkiari lotuta dagoen ezinbesteko tresna da. Maskara antzeztearen erritoaren parte da. Maskarak: Historia: antzinako Grezian. Pertsonaiaren ezaugarriak handitu egiten zituzten. Maskarek esker, gainera, aktore batek pertsonaia bat baino gehiago antzeztu zitezkeen. Ondoren Italian Comedia dell’Arte indartzen hasi zenean, maskarak ere zabaltzen joan ziren. Maskara mota asko dago: paperez egindakoak, larruzkoak, kartoiarekin eginak, apar sintetikoak, egurrezkoak, etab... Batzuek aurpegi osoa estaltzen dute, eta beste batzuek, berriz, aurpegi erdia edo aurpegiaren zati bat (sudurra, begiak, masailak...). Badira buru osoa estaltzen duten maskara handiak ere. Maskarak: adierazpenak. Erabileraren arabera ere, maskara tankera askotakoa izan daiteke: • Maskara neutroa

	• Maskara erdia • Pertsonaia maskara • Mamu, jainko-jainkosa edo animalia basatien maskarak • Mozorro maskara Erabilpena: maskara janzten dugunean gorputz osoak maskara horri lagundu behar dio, hau da, bere zerbitzura lan egin behar du. Alegia, kontatu edo esan nahi duguna, gorputzaren jarrera eta mugimenduen bidez adieraziko dugu. Horregatik maskara erabiltzeko gorputza landu beharko dugu. Kontrola eskatzen du maskarak. Mugimendu garbi eta zehatzak. Maskararen atzean aktore bat dago, pertsonaiari bizia emango diona. Aktore askorentzat, hasieran behintzat, maskara baten atzetik lan egiteak balio dezake lotsa uxatzeko edo jende aurrean agertzeak ematen duen larritasunetik babesteko.
--	--

Iturria: Goenaga 2021

3.5.2.2. Generoa

- Komediaren ezaugarriak:
 - Pertsonaia gehiegizkoak. Komeditan protagonista diren pertsonaiak muturrera eramanez daude. Normalean, bizioren bat duten eta egoera barregarri eta dibertigarriak bizi dituzten pertsonak irudikatzen dituzte.
 - Arketipoak. Komediako pertsonaiak arketipoak ere izan ohi dira, hau da, gizartean ohikoa den bizioaren adibideak dira (zikoizkeria, pikardia, gezurra, etab.).
 - Helburua: barrea. Argi dago komediaren ezaugarrietako bat ikusleari barre eragitea dela. Baina ez da doako barrea, irriaren bidez gogoeta eginarazten digun umore mota bat baizik.
 - Gai sozialak. Gehienetan, komedia testuinguru soziopolitiko jakin baten barruan kokatzen da. Izan ere, pertsonaiek barre eginaraziko digute, baina bizi garen munduari buruzko salaketa- edo hausnarketa-mezu bat ere zabalduko dute. Barrea, beraz, salaketa sozialaren arma bihurtzen da sarritan.
 - Amaiera zoriontsua. Komediaren beste elementu azpimarragarrienetako bat da, azpigereneroa gehien identifikatzen duena. Izan ere, tragedian ez bezala, komedian

amaiera zoriontsuak ohikoak dira, ikusleei energia ona eta positibotasunez eta itxaropenez betetako mezua emanez. (“Komedia” 2025)

- Drama:

Tragediaren eta komediaren gaiak biltzen dituen antzerki mota. Grekotik dator hitza, eta ekintza esan nahi zuen jatorriz, baina XVIII. mendera arte oso gutxi erabilitako hitza da. Poeta klasikoek tragedia goi mailakotzat eta komedia behekotzat hartzen zituzten, baina, humanismoaz geroztik, erdibidekoa onesten dute, eta bien ezaugarriak lotzen dituzten drama motez hasten dira hitz egiten, hala nola, tragiko mediaz, komedia eta tragediaren sintesi, bitarteko eta ondorio diren aldetik. Garatu diren drama moten artean, drama burgesa, drama liturgikoa, drama lirikoa eta drama historikoa bereizten dira.

3.5.2.3. Estructura

- Planteamendua: hemen zer, non, zein pertsonaiak hartzen duten parte eta antzezlanaren ulertzeko behar den guztia adieraziko da.
- Korapiloa: arazoa korapilatzen joango da. Atal honetan antzerkiaren mamia egongo da.
- Amaiera: korapiloaren askatzea eta horren ondorioak azalduko dira.

3.5.3. Adierazkortasun-baliabideetan eta erregistroen arakatzea

3.5.3.1. Erregistroak

Lehenik eta behin, hizkera adierazkorra kokatzeko Euskaltzaindiak proposatzen duen erregistroaren definizioa erabiliko da, hizkuntzen aldaeren ezaugarriak testuinguru zabalean kokatzeko. Definizio horretan erregistroa “solaskideen arteko harremanen, haien asmoen, gaien, formaltasun-mailaren eta egoera definitzen duten beste hainbat faktoreren eraginez erabiltzen den hizkera mota” gisa ulertzen da (Euskaltzaindia, 2008: 21). Gainera, erregistro bat edo bestea erabiltzeko unean dauden aldagaiak hainbat dira:

- Hiztunaren jatorria eta maila soziala. Hots, jatorri geografikoa eta maila sozial eta kulturala. Alde batetik, euskalkiak eta, bestetik, soziolektoak ditugu. Fonologia eta lexikoa izaten dira gizarte mailaren arabeko erakuslerik ohikoenak. Gogoratu beharra dago historian zehar euskaraz herri xehea mintzatu dela eta latinez, gaskoiz, gaztelaniaz edo frantsesez jende gorena (Zuazo, 2005: 218).

- Gaiak: orokorrak eta espezifikak.

- Egoera komunikatiboa: formala (hizkera neutroa) ez-formala/informala (hizkera adierazkorra).

- Kanala: ahozkoa, idatzizkoa eta mistoa.

Erregistro formalean: hizkera neutroa erabiltzen da. Igorleak hizkuntza-baliabide egokiak hautatzen ditu, eta hizkuntza arretaz aukeratzen du. Erregistro espezializatuak izan daitezke, adibidez, tekniko-zientifikak edo hezkuntzan transmititzen den hizkera.

Erregistro informalean: hizkera adierazkorra erabiltzen da. Lagunarteko edo familiarreko komunikazioan gauzatzen da. Egitura sinpleak hautatzen dira, eta igorlea adierazkorra izaten da. Kalea, lagunartea, aisialdia dira bere espazio naturalak, eta onginahi, maitasun, konfiantza, adiskidetasun, harridura, haserre, mespretxua adierazteko hizkera mota guztiak barne hartzen ditu.

3.5.3.2 Adierazkortasun-baliabideak

Testuinguru ez-formal edo informalaren barnean, hizkera adierazkorra dugu. Mintzaira mota honetan, hizkera neutrotik ateratzen den guztia sartzen da. Alegia, onginahi, maitasun, konfiantza, adiskidetasun, harridura, haserre, mespretxua adierazteko baliabide mota guztiak.

4. taula. Hizkuntzaren bariazioa eta erregistroak

	Familiarra	Ez-familiarra

Fonologia	• Kontrakzioak • Intonazioa eta aldaera aberatsak • Ahoskera zaindu gabea, • palatalizazio adierazgarriak	• Hitz osoak, • Intonazio monotonoagoa • Ahoskera arduratsuagoa
Morfosintaxia	• Gramatika trinkoa • Aditz ez-jokatuak • Esaldi eta molde adierazgarriak • Elipsiak • Hitz-ordenaren aldaketak • Tratamendua: hitanoa	• Gramatika ugariagoa • Aditz jokatu gehiago • Molde neutroak eta formalak • Elementu gehiagoren edo guztien agerpena • Tratamendua: zu eta (iraganean) berori.
Lexikoa	• Mailegu gehiago • Bikote lexikoak • Eremu semantikoen muga lanbroak • Lexiko afektiboa, kortesia formulak, <i>esklamazioa</i>, <i>argota</i>	• Lexiko zehatzagoa, berezitua • Lexiko teknikoagoa • Teknolektoen hitzak

Iturria: Euskaltzaindia (2018).

1. Palatalizazioa

Bustidura mingaina aho-sabaian ukitzean ematen diren soinuak direlako esaten zaio. Hizkuntza gehiagok erabiltzen dute, hala nola italierak edo suedierak (Oñederra, 1990: 16). Euskaraz urruntasuna, gertutasuna, zakartasuna, maitasuna, oniritzia, haserrea edo mespretxua adierazteko erabiltzen ohi da.

Gehienetan palatalizazioa, forma hipokoristikoak (izenen txikigarriak: *Ane/Añe*, *Haritz/Haritx*, *Haizea/Haixea*, *Martin/Mattin* sortzeko erabiltzen da. Bestalde, adjektiboekin eztigarri gisa erabiltzen da: *gozo/goxo*, *zuhur/xuhur*, *bizi/bixi*, *labur/llabur*, *zintzo/txintxo/ttintto*, *bero/bello* eta abar.

Gainera, asmoaren arabera intonazio bat erabiltzen da, hau da, helarazi nahi dugunaren arabera intonazioa moldatzen dugu, adibidez, xamurtasuna edo haserrea adierazteko. Beraz, segur aski ez dugu doinu bera erabiliko: *norena da txakur (politt) hori?* edo *norena da zakur (itsusi) hori?* esateko.

2. Errepikapenak

Hitz-errepikapenak esandakoari indarra emateko erabiltzen dira, eta hitz berriak sortzeko ere bai. Hiru motako errepikapenak daude.

Lehenengoan, adjektiboa errepikatzen da: *polit-polita da hori; gorri-gorriak dira etxean ditugun loreak; koadro eder-ederra da; txiki-txikia sentitu zen; harro-harroa da; txori hori gorri-gorria zen; xuri-xuria zen ekarri zuen xakurra*.

Bigarrenik, adberbioekin errepikapena dugu kasu anitzetan, hala nola *poz-pozik etorri zen, blai-blai eginda ailegatu ginen, neka-neka eginda etorri dira menditik*.

Hirugarrenik, zenbait hitz elkartutan eta onomatopeiatan aurkitzen ditugu: *birrinbi-barranba, birrin-birrin, bolo-bolo, duda-muda, hitz eta pitz, ihihi eta ahaha, ikus-makusi, ipi-apa, kiskun-kaskun, plisti-plasta, tirriki-tarraka, ttapa-ttapa, ttiki-ttaka, txin-txin, txitean-pitean, zehatz-mehatz, gazi-geza, xirmi-xarma, zirimiri, zurrumurru, zalantza-malantza* eta horrelako beste asko ditugu.

3. Biraoak eta esapideak

Aipatu bezala, ikasle askok euskara ikastetxeko hizkuntza akademikotzat hartzen dute, txukuntzat eta birao gutxikotzat. Baina errealitatea bestelakoa da. Izan ere, euskaraz ere badaude lagun hurkoa iraintzeko modu asko. Esan beharra dago, lan horretan sakrea edo biraoa zentzu zabalean ulertzen dela, hau da, “beste batzuei zuzentzen zaizkien laidozko hitzak eta esaerak dira [...] iraingarriak diren hitz eta itzuliak, nahiz denek ez duten gisa berean iraintzen” (Salaberri eta Zubiri 2007: 10).

Irain guztiak ez dira mota berekoak. (Salaberri, Kamino eta Zubiri 2004: 27-117). Irain maila asko dago, haserrea, nahia eta, oro har, testuinguruaren arabera. Ikasleek Biraoak. Nafarroan bildua. Liburua izanen dute baliabide, beren antzezlanen beharretara egokitzen diren baliabideak erabiltzeko.

- Sakre husak: *aztunpa, bandil, batailas, burugogor, ddolddor, desairoso, diruzale, elekatari, enbustero, erolai, esanerraz, fanelo, kaiku, muturfin, puzkilde, supei, tunante, tximur, zarpas, zindiku, etab...*

- Sakre balioa duten esaldiak: *ez izan eta bai uste, habil kaka egitera, habil porruak landatzera, izorra bedi / izorra dadila / izorra zaitez / izorrai, izorra hadi eta hago / jodihadi!, kabelaostia / kaben/ kabuendio / kauenlamar / kauendioro / kauensos /kauenturron /mekauenlabita, kaka zahar! / kaka puska!, kaka egizak!...*

- Harridura, haserrea, mehatxua adierazteko:

Arraio! Bai horixe! Bai hostias! Bai, zera! Demontre / demontres! Dedio! / dedios! / rediez / redios, Hara! / Haratx!, kontxo!, kopon!, koño! / koñe / errekoño/ laletxe!, laospa /ospas!, lasostia /ostia!, laostibiri

- Gaitza desiratzen duten esaldiak: *Bertan geldituko ahal haiz! Itoko ahal haiz! Leher eta zapart egin baleza urde zikin ustel horrek!* (Salaberri, Kamino eta Zubiri, 2004:10)

Morfologiari dagokionez (Salaberri, Kamino eta Zubiri, 2004: 11-12), atzizki eta bukaeraren bidez osatutako biraoak ditugu:

- -tzio eta -oso/a atzizkia: *alferrontzio, melontzio, zaldartzio, zepelontzio, espantoso, setoso, mañosa, pantasiosa, tranposo, latoso, etab.*

-era/ero atzizkia: *burrunbera/o, enbustera/o, zurrutera/ero* (asko edaten duena), *gezurtero, kuxkuxera/kuxkuxero, etab.*

- Izen elkarketen bidez eratutakoak:

Baba + lore → *babalore*

Hiz + ontzi → *hitzontzi*

Tripa + ontzi → *tripontzi*

Txori + buru → *txoriburu*

- Izen eta adjektiboen elkarketen bidez osatutakoak:

- Belarri: *belarrihandi, belarrimotz, belarriluze...*
- Gibel: *gibelhandi.*
- Lepo: *lepoiha, lepoluze, lepomehe...*
- Hitz bakunak: hitz askez osatutako birao multzoa da: *ergel, fanfarroi, faltsu, kabroi, kaiku, txoro, zerri, zepel, zozo, zur...*

Palatalizazioa ere maiz erabiltzen den baliabidea da, iraina ematu nahi bada: *basapixti, belarrimotx, beratx* (beldurti), *kuxkuxero-ra, kattakume, ximple, pixontzi, purttokilo, ñaño, ttarro, xabor, xaborrero, xikin, xital, xoriburu, xuhur*. Kontrako prozedura ere erabiltzen da: *Berrizu, kuzkuzera, zoziburu, zoro, zegapoto, zupei*. Hori antroponimian ere ibiltzen den sistema bera da: *Felix: Feliz, Joxe: Joze, Uxue: Uzue* (Salaberri eta Zubiri, 2007: 21).

4. Mailakatzea

Adjektiboaren mailak adierazteko adberbio berezi batzuk erabiltzen ditugu: *oso, guztiz, biziki, nahiko, aski, samar, batere* eta abar.

Euskara gutxi erabiltzeagatik askotan adberbio bera erabiltzera jotzen dugu, adibidez: ezagutu berri dudan neska *oso* jatorra da. Baina, lagunartean edo testuinguru familiar batean normalean mailakatze adberbio gehiago erabiltzen dira. Modu horretan, gauza bera adierazteko adberbio ugari erabil daitezke: *aski jatorra da / jator askoa da / biziki jatorra da / arras jatorra da / gogorki jatorra da / lazki jatorra da / arrunt jatorra da / txit jatorra da*.

5. Eratorpen atzizkiak

Euratorpen atzizkiak ere egokiak dira honelakoetan eta bolo-bolo entzuten dira familian edo lagunarteko hizkeran:

Hortxe utzi ditugu berokiak / horixe erantzun nion! / hantxe egongo gara zure zain / huraxe galdu zen / banku honexetan itxaroten badugu? / beroki hura zahar(t)xeagoa da! / hauxe da nahiago dudana / geroxeago joango gara / handixkoenak behean utziko ditugu” / gehienxkoenak egin ditut / azkarxeago ibil zitekeen...

6. Esamoldeak eta atsotitzak

Esamoldeak ugari erabiltzen ditugu egunerokoan; balio adierazkor handia dute, eta ideiak eta egoerak laburbiltzeko tresna paregabeak dira. Hala ere, normalean ikasleak gogoratzen dituzten gehienak erdarazko esamoldeak dira. Horregatik, euskaraz dauden esamolde errazenak ezagutaraztea komeni da, hala nola:

Gauzez katu guztiak beltzak: Iluntasunean edo argi falta dagoenean, erraza da akatsak ezkutatzera edo ez antzematea.

Jakiteak ez du ogirik jaten: jakintzak ez du inoiz kalterik egiten

Astoa zaldiz jantzi arren, beti asto: Gauzak diren bezalakoak dira, itxura aldatzen saiatu arren.

Txapela buruan ere, astoa beti asto ere arras erabilia da.

Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon / Dagoenean bonbon, ez dagoenean hor konpon.
Garai onetan gozatu eta garai txarretan konformatu behar dela adierazteko.

7. Alderaketa adierazkorrak

Gaztelaniaz mintzatzerakoan ohituta gaude alderaketa adierazkorrak erabiltzera. Ipar Euskal Herrian, antzera gertatzen da frantsesarekin datozen alderaketa adierazkorrekin. Ikasleek hainbat euskal esamolde ezagutzea komeni da, eta errazagoa da gaztelaniaz (edo frantsesez) ezagutzen dituztenak euskaraz nola diren gogoratzea. Hortaz, honako adibideak hautatu dira: *Azeria bezain abila du, tximista bezain agudo, saltsa bezain apaindua, txoria bezain alegera edo eguzkia bezain argi.*

4. Emaitzak

Proposamen didaktikoaren atal bakarria eraman da praktikara. Alegia, adierazkortasun baliabideak lantzen dituenak. Ondoren, proiektuaren metodologian aipatutako pretesta egin da, ikasleen alde aurreko ezagupenak eta gaitasunak aztertzeko.

Lehendabiziko atal horren emaitzak orokorrean onak izan dira, eta ikasleei gaia jakingarria eta ulergarria egin zaiela ondorioztatu daiteke. Izan ere, DBH 3. mailako lehenengo taldeko ikasleek saio osoan zehar arreta mantendu dute, eta batzuek ezagutzen ez zituzten hitzak eta esapideak ozen eta eskatu gabe errepikatu dituzte. Laburbilduz, azalpenak adi entzun dituzte, eta adierazkortasun baliabide batzuekin trebatzen hasteko ariketak egiteko unean, ikasle gehienek parte hartu dute, eta interesa eta abilezia erakutsi dute.

DBH 3. mailako bigarren taldean antzeko emaitzak izan dira. Talde horretan ere azalpenak eman bitartean ikasleek arreta mantendu dute, eta ariketak egiteko gaitasuna eta abilezia erakutsi dute.

Etorkizunean, atal teoriko hori paperetan soilik eskaini beharrean, euskarri digitalean ere aurkeztea (PowerPoint batean, esaterako) proposatzea litzateke, gaiarekiko ulermen esanguratsuagoa bermatzeko eta ikasgelan egoten den adimen aniztasunari arreta emateko.

Adibidez, fonologia eta morfologiaren aldaerei dagokienez, euskarri digitalean euskal telesail edo filmen zati esanguratsuak aukeratzea egokia izango litzateke, erregistroen aldaeren ezaugarriei jabetzeko (Goenkale telesailaren zati bat ikusaraztea, adibidez).

Proposamen didaktikoaren atal praktikoa, hots, pretesta, talde bakarrarekin egin da. Horretarako, hiru ikasle osatutako taldeak egin dira, eta azalpen xume baten ondoren, taldeka antzerki gidoi labur sortzea eta antzezteko eskatu zaie. Pretest horren emaitzak, honako hauek izan dira:

Alde batetik, ikasleek gidokia sortzeko denbora laburra izan dela adierazi dute, nahiz eta 30 minutu baino gehiago izan duten antzerki gidoi labur bat idazteko. Bestalde, saioaren hasierako azalpenetan adi egon arren, askok taldeka antzerkia sortzeko unean ikasgaiarekiko arreta galdu

dutela adierazi beharra dago. Hortaz, hurrengo saioan ingeleseko azterketa dutela esan didate eta, horrek ikasle baten baino gehiagoren arretan eragina izan duela esan daiteke.

Bestalde, ikasleek ebaluatuko ez zen ariketa zela sumatu dutela ondoriozta daiteke. Hala, nahiz eta talde guztiek eskatutakoa bete, batzuek ez dute ahalegin handirik egin edo galduta ikusi dute bere burua antzerki gidoiak idazteko. Ondorioz, talde batzuen antzerki gidoiak oso laburrak izan dira. Hala ere, bi taldek denon aurrean idatzi dituzten gidoiak antzeztu dituzte.

Beraz, alde batetik, esan daiteke adierazkortasun baliabideak gutxi ezagutzen eta erabiltzen dituztela egunerokoan, eta, bestetik, antzerki gidoiaren inguruko ezaugarriak ez dituztela ezagutzen. Hortaz, talde batek baino gehiagok narrazioan ohikoak diren formula batzuk erabili dituzte (adibidez, pertsonaia baten esaldia eta, gero, *esan zuen* erabiltzen dute).

Bukatzeko, antzerki ikuskizunak ezagutzen dituzten ala ez galdetutakoan, ikasle gehienek Lehen Hezkuntzan antzezlan bat ikustera joan zirela erantzun dute. Gehienek ez dute oso ongi gogoratzen, eta ez dute orduz geroztik antzezlanik ikusi.

5. Ondorioak

Lehenik, Iruñeko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz, gehienbat, euskararen ezagutzatik erabilerara dagoen arrakalari dagokionez, Bigarren Hezkuntzan antzerkia eta antzerki testua hiruhileko batean zehar lantzearen eraginkortasuna nabarmenduko dut.

Oinarri teorikoan aipatu bezala, antzerkia, besteak beste, sormenean, ahozkotasunean, gorputz adierazpenean eta erregistro aldaeretan trebatzeko tresna guztiz aproposa da. Modu berean, antzezlan bat eraikitzen trebatzea ikasleen hizkuntza bizipenetan eragiteko baliagarria da, erabilera sentituaren eta performatuaren kontzeptuen garrantziari jarraikiz.

Emaitzak ikusirik, ondoriozta daiteke orokorrean DBH 3. mailako ikasleek antzerki testuen inguruko ezagupen gutxi dituztela eta antzerkia, orokorrean, nahiko arrotza zaiela. Hortaz, eratu

den proiektua DBH 4. mailan lantzeko egokiagoa dela pentsa daiteke. Betiere, alde zurretik, DBH 3. mailan ahozketasuna behar adina landu bada.

Adierazkortasun baliabideei dagokienez, ikaskuntza kontzientea gertatzea beharrezkoa dela ikusi da, kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak aintzat hartuta. Beraz, proiektuaren atal bat Euskal Herrian dauden adierazkortasun baliabideetan arakatzeko eratu da. Hortaz, ikasleei euskarak adierazkortasun baliabide batzuk erakutsiko zaizkie eta beste baliabide batzuetan arakatzeko tresnak ere eskainiko zaizkie.

Beste alde batetik, egungo hizkera balioesteko Euskal Herriko beste eremu batzuetako ikastetxeko ikasleekin trukea egiteko proposamena oso egokia litzateke, tokian tokiko hizkera adierazkorra ezagutzeko, eta baita euskalkiak hobeki ezagutzeko ere. Proiektu honetan posta elektronikoaren bidez beste eremu batzuetako ikasleekin adierazkortasun-baliabideak trukatzeko, oso egingarria litzateke. Horrekin guztiaren, ikasle bakoitzak adierazkortasun baliabide propioa sortuko luke, gero antzezlan testuetan ikasitakoarekin trebatzeko.

Proiektuan zehar landuko diren gaitasunak metodologian adierazitako ebaluazio-irizpideetan islatu dira. Beraz, adierazle horiek etorkizunean proiektua osotasunean ebaluatzeko tresna izanen dira. Hortaz, pretesta eta postestaren arteko alderaketa egiteko ere erabiliko dira, proiektuaren helburu orokorrak eta zehatzak bete diren aztertzeko.

Proiektuaren sekuentziazioaren bi atal garatu gabe geratu dira. Hots, euskal antzerkia gaur egun eta egile euskaldunen testuak, eta antzerkia lantzen eta eraikitzen hastea.

Bukatzeko, proiektua praktikan aurrera eramateko oso egokia izanen da ikasleekin antzezlanak ikusteko ateraldiak antolatzea, beren erreferente kulturalen ortzi-muga zabaltzeko.

6. Erreferentziak

-71/2022 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren irakaskuntzen Curriculum.

- 71/2022 FORU DEKRETUA, 2022ko abuztuaren 4koa, Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren irakaskuntzen Curriculuma. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 155, 154-256.
- ABLANEDO, A. (2023). Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoen artean: egoera eta aukera berriak. Eukaltzaindia.
- ALTUNA, O. HERNANDEZ, J. M. (2021). Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 120, 29-45.
- AMONARRIZ, K. (2018). Gazte hizkerak-hizkera gazteak. BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 68, 163-189.
- ANDUAGA, E. eta KASARES, P. (2018). Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa. BAT Soziologia Aldizkaria, 106, 65-78.
- ATZINAKO ERROMAKO ANTZERKIGINTZA (2023aren uztailaren 3an). Wikipedian.
- BASURTO, A. (2023). Euskararen auzia nerabeena baino gehiago da helduena. Jaime Altuna. Argia, 2023ko abenduaren 3a.
- ETXEBERRIA, I. (2016). *Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak*. Euskaltzaindia.
- EINES, J. MANTOVANI, A. (2018). Didáctica de la dramatización. Gedisa.
- EUSKALTZAINDIA (2008). Zenbait orientabide erregistroen trataeraz. Euskaltzaindia.
- GASPAR, A. (2024). Kontzientzia metalinguistikoa eta eleaniztasuna: berrikusketa bibliografiko bat. *Fontes Linguae Vasconum*, 138, 349-374.
- GOENAGA, A. (2021). Gora teloa! ANTZERKI GIDA. Ikertze.
- GOENAGA, A. BAREA, P. (2021). Antzerkia. Le théâtre. Etxepare Euskal Institutoa.
- HERNANDEZ, J. M. (2016) Jarrera eta motibazio kontzeptuen haratago... Hizkuntza kultura, praktikak eta emozioak. BAT Soziologia Aldizkaria, 99, 179-195.
- HERNANDEZ, J. M. SANTAMARIA, A. (2021). Do It Yourselfetik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak. *Fontes Linguae Vasconum*, 132, 349-374.
- IGARTZABAL, I. (2014). Kode-alternantzia eta hizkuntza ohiturak Gabiriako bi belaunaldietan. BAT Soziologia Aldizkaria, 92-93, 229-251.
- KOMEDIA (2025eko apirilaren 30ean). Wikipedian.
- IPARRALDE IKASTETXEKO HIZKUNTZA PROIEKTUA.
- LUKU, A. (1999). Iparraldean antzerkian aritzeko nahikeria handia dago. Ainhoa Irazu. Eusko News & Media. Eusko Ikaskuntza, 41.
- LUKU, A. (1999). Oraingo Antzerkiaz. Euskera, XLIV, 293-300.
- MARIN, J. (2015). Esatearen ederra. Agertokitik ikasgelara. Euskera, 60, 451-476.

- OLASAGARRE, Y. (2023). Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoan: egoera eta aukera berriak. Euskaltzaindia.
- OÑEDERRA, M.L. (1990). *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- SALABERRI, P. eta KAMINO, P. (2008). Alderaketa adierazkorrak. Bezain-en erabilera euskaraz. *Fontes Linguae Vasconum*, 109, 511-538.
- SALABERRI, P. eta ZUBIRI, J.J. (2007). *Biraoak. Nafarroan bilduak*. Pamiela.
- SALABERRI, P., KAMINO, P. eta ZUBIRI, J.J. (2004) Goizuetako hizkera adierazkorra: biraoak. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- URIOANAGUENA, M., FLORES, B., BIDEKAIN, E. eta ZUBEROGOITIA, A. (2023). Euskal tiktokarren edukiak eta hizkuntzaren lekua. *Euskera*, 68, 117-148.
- VALVERDE, J (2013). Teatrogileek teatroaz. Maite Agirre, Antton Luku eta Ander Lipus. *Euskera*, 58, 873-919.
- ZUAZO, K. (2005). Euskara Batua. *Ezina ekinez egina*. Elkar.

7. Eranskinak

7.1 Adierazkortasun-baliabideak lantzeko ariketak

1. Aldatu esaldiak palatalizazio eta errepikapenekin erabiliz:

- a) Ze hotzak dituzun eskuak Izar!
- b) Zeinen txikia geratu den gure amatxi!
- c) Begira, horri zezen deitzen diote herrian.
- d) Ikusi duzu ile beltza duen katu txiki hori?
- e) Neska azkarra da Nagore.
- f) Ezagutzen duzu baserritar bizkardo hori?
- g) Haize freskoa dabil!
- h) Tipi-tapa heldu gara herriraino Asier eta biok.

2. Onomatopeiak: elkartu onomatopeia bakoitza bere esanahiarekin

Ipi-apa	Sabelaren hotsa
Krik-krak	Xehetasun guztiekin
Barra-barra	Hizketa, isildu gabe
Txor-txor	Bat-bateko ekintza
Kar-kar	Begiak pozez
Gur-Gur	Zerbaitek haustean
Di-da	Barre egin
Birrinbi-barranba	Izarrak zeruan
Ñir-ñir	Ugari
Dir-dir	Zarata

3.Ozen. Zein irain edo birao ezagutzen dituzue euskaraz?

4.Elkartu sakre edo biraoa bere esanahiarekin:

Astalorea	Traketsa (torpe)
Astapotro	Txoriburu/txanbelain
Axeri	Zaratatsua
Baldarrio	Inoxentea
Burrunbero	Harroa
Kaxkarin	Gaiztoa
Pinpirrin	Basatia
Zirrikiton	Faltsua, azpikeriaz jokatzeko dena
Kaskoin	Zirikatzailea
Kakalardo	Kexatia
Espantohaundia	Tontoa/inoxoa
Xixante	Belarrimotz

5. Bete hutsuneak ondorengo esapideekin. Kasu! Batzuetan aukera bat baino gehiago dago.

ARRAIO! BAI, BA IZORRAI KOPON OSPA BABO ZUTU HARA DEMONTRE BABO KAUENSOS ZUTU BAI, ZERA KAKA ZAHARRA TUTIK
--

1. Ez esan _____ horrek bere onetik ateratzen duen bakarra dela ?
2. Txotxolo horrek _____ egiten nau!
3. Egon lasai, ez dute _____ ulertzen!
4. Zer _____ egiten duzu hemen?
5. Berriz ere euria ari du! _____
6. _____ hemendik lehenbailehen, eh!
7. Hori ez esateko esan nizun, _____ !
8. _____ ! Begira nor etorri den!
9. Beti besteei zirikatzen, ba, _____ !
10. Garraaldako festetara joan zinetela? _____!
11. Ez zenidan hori kontatu? _____ !

7.2 Antzerkia lantzen hasteko ariketak

Iturria: Goenaga 2021. Gora telioia! Antzerki gida.

1. Nola kontatuko dugu? (Goenaga 2021: 56-57)

- Jorratu nahi den gai horri buruz antzezlan bat idatzita ote dagoen bilatu. Edo antzerkira moldatu daitekeen libururen bat ote dagoen ikusi. Edo agian, eta hala erabakiz gero, talde lanean sortzeko bidea hartu.

a) Ideia nagusia idatzi

b) Pertsonaien zerrenda egin

c) Eskema egin: hasiera, korapiloa eta amaiera

- Kantu bat aukeratu. (Goenaga 2021: 59)

Esate baterako, *Maritxu nora zoaz?*

Eta biren artean antzeztu. Baina... aldi bakoitzean egoera ezberdin baten baldintzapean:

- ❖ Atzerritarrak zarete eta hitzen bila zabiltzate
- ❖ Festak dira, eta parrandan
- ❖ Beldurrezko egoera batean
- ❖ Erabat maiteminduta
- ❖ Bata lotsatuta eta bestea lotsagabe. Edo alderantziz
- ❖ Bata haserre eta bestea jostalari. Edo alderantziz
- ❖ Iragarki bat egiten ari bazinete bezala
- ❖ Jendeari barre eginaraziz
- ❖ Zuen lagunik hoberena hil da, eta iturriapozoitua balego bezala
- ❖ Broadway-eko musikal bat balitz bezala
- ❖ *etab... etab... etab...*

- Pasadizo bat kontatu (Goenaga 2021: 59)

Baina amaiera baino lehenago eten kontakizuna. Ondoren ikasleek kontakizunari amaiera eman behar diote. Irudimena eta sormena landuz. Ikuspuntu “berezia” eta espero ez dena planteatuz. Ariketa berdina egin daiteke ipuin tradizional laburrekin. Edo serieetan agertzen diren egoera xelebreekin, planteamendua kontatu eta haiek amaiera eman diezaiotela.

2. Antzezlan nola landu? (Goenaga 2021: 69)

- Testuaren irakurketa

→ Antzezlanaren testuinguru historikoa aztertu: zein antzezlan mota den eta zein emanaldi mota egin nahi duzuen erabakitzen lagunduko dizue.

→ Antzezlanaren hasieran pertsonaien zerrenda dator. Pertsonaia bakoitzari aurpegia jarri, horrek asko lagunduko dizue antzezlan irakurtzerakoan.

→ Dagoeneko jakin badakizue zein den antzezlanaren tonua, zer kontatzen duen, zein den lanaren helburu nagusia, etab. Horrek antzezlan modu egokian irakurtzen lagunduko dizue.

→ Taldekide guztien artean irakurri behar baduzue antzezlan lehen aldiz, komeni da denok aurrez aurre eseri eta elkar ikustea. Poliki irakurri. Eta lehen esan bezala, ulertzen ez dituzuen hitzen esanahia hiztegian bilatu.

→ Zuetako norbaitek "akotazioak" irakurri. Akotazioek antzezlanaren kokalekua deskribatzen dute, baita ekintzak edo gertatzen diren gorabehera guztiak.

→ Testua ozen irakurtzean bizia eman behar diozue pertsonaiei, bihotza jarri eta sormena erantsi.

3. Ahotsa landu (Goenaga 2021: 71)

1. Arnasketak egin
2. Erlaxazioa. Gorputzetik tentsioak kanporatu
3. Ahotsa berotu: Brrrrr... brrrrr... luzeak eta ozenak egin.
4. Ma-me-mi-mo-mu... ozenak eta kantatuak egin.

5. Modulazioa eta doinua: Ahotsaren adierazgarritasuna landu. Esaldi luze

bat aukeratu, buruz ikasi eta ozenki esan. Esate baterako: бага biga higa...

→ Aldi bakoitzean modu ezberdin batean esaten saiatu. Aldi bakoitzean hitz desberdin bat azpimarratu:

*Baga, biga, higa,
laga, **boga**, sega,
Zai, zoi, **bele**,
harma, tiro, pun!
Xirristi-mirristi.
gerrena plat,
Olio **zopa**, **Kikili** salda,
Urrup edan edo **klik** ... **ikimilikiliklik***

→ Azken hitzak janda uzteko joera saihestu: saiatu zure azken hitzei indar berezia ematen:

→ Hitzak arrapaladan esatea saihesteko, esaldiko hitz bakoitzaren ondoren, pentsatu (ez esan) bat hitza.

4. Gorputz beroketa (Goenaga 2021: 71)

Itsuaren jokoa Talde osoa espazioan banatu. Denek begiak itxi. Ez ireki begiak! Eta arduradun batek esandakoan poliki-poliki ibiltzen hasi. Arduradunak egoera batean zaudetela esango du, esate baterako, baso eder baten erdian zaudete, eta ibiltzen jarraituko duzue, eta halako batean euria hasiko du. Sentitu euria, baina halako batean euri zaparradak busti egingo zaituzte. Asko. Blai eginda zaudete, oinetakoak blai, kamixeta busti-busti eginda... zuhaitz baten azpian babestuko zarete. Euria gelditu da eta norbaitek sua piztu du, sutondoan jarri eta berotuko zarete, eta usain ederra dator.

